



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengo agintzea erabaki dut:

**OÑATIKO EMAKUMION KONTSEILUAREN ERAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZA**

1/2022 LEGEak, martxoaren 3koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoak, 22.5 artikuluan adierazten duenez, erakunde publikoek “emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal administrazio publikoekin elkarrizketan aritzeko bideak antolatuko dituzte, besteak beste entitateak sortuz eta kobernanta ere duak bultzatuz”. Norabide bera ezartzen du Oñatiko emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Planaren 3.2. helburuak eta horren garapenerako aurreikusitako lan ildoak.

Oñatiko Partaidetza, lankidetzak publiko-soziala eta irekiera instituzionala arautzeko udal ordenantzak 9. artikuluan jasotzen du “udalak lankidetzak publiko soziala sustatuko duela interes orokorreko jarduerak garatzeko, baldin eta, beren eskumen esparruan guztion onura ekarriko badute” eta besteren artean honako eragite esparrua definitzen du: “emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, ahalduz sustatzea maila indibidualean, kolektiboan eta soziopolitikoan, pentsamendu eta ekintza feminista sustatzea, indarkeria sexista prebenitzea eta arreta ematea eta zaintzak demokratizatzea”.

2018an abiatu zen helburu horien baitan eragin asmoz, Oñatiko Emakumion Kontseilua eratzekeo prozesua. Espazioaren definizio, formulazio eta martxan jartzeko lau urteko prozesuaren ondoren, berau arautuko duen ordenantza jasotzea adostu du berdintasun batzordeak.

39/2015 legearen VI. Tituluak legegintza-ekimena eta erregelamenduak eta bestelako xedapenak emateko ahala xedatzen du. Horren baitan, 133 artikulua herritarrek lege mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea arautzen du. Horren arabera, administrazio publikoek legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko dute administrazioa eskudunaren webguneari bitartez. Helburua da etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta antolakunderik ordezkagarrien iritzia jasotzea puntu hauei buruz:

- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak
- Arau hori onestea beharrezko egoki den
- Arauaren helburuak
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Udal prozeduren gidaliburuko P006 prozedurak xedatutakoaren arabera, arau proposamenaren ardura duen sailak Administrazio Prozedura Legearen 133. artikulua ezartzen dituen sarrera eta lau eremuak jasotzen dituen dokumentua bidaliko dio Udalaren Herritarren Partaidetza eta Komunitate Garapenerako Sailari.

Berdintasun teknikariaren proposamena kontuan hartuz, honakoa erabaki dut, Alkate naizen aldetik:

- Oñatiko Emakumion Kontseiluaren eraketa eta funtzionamendua arautzeko prozedurari hasiera ematea
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 133 artikulua xedatutakoari jarraiki, Udalaren webgunean kontsulta publikorako epea zabaltzeko helburuarekin, hasierako dokumentua publikatzea.

**Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut**

**Oñatin, 2022eko uztailaren 29an**

